

1913

Juan Arancibiaren plano

Juan Arancibia arkitektoa Durangon jaio zen 1876an baina ia lekeitiarra zen aita bertokoa zelako eta gurera etortzen zirelako, familiaren plazako etxera. Arkitekto eta politikaria izan zen, koinatu Bruno Larrazabalen antzean maurista, eta Bilboko alkate 1922-23 artean. Baina hemen Lekeitioan egin zuen arkitekto lana interesatzen zaigu.

Lehenengoz 1909an agertuko zaigu kanposantuko handitze lanetan. Erreforma lan horien barruan atari berria eta gorputegia diseinatu behar izan zituen, gainera Rodríguez Espina eta Adán de Yarzarren kaperak altxatu zituen, benetan zoragarriak, baina guk baino gehiago dakienaren hitzak errepikatuko ditugu Gorka Perez de la Peñak Kurik 3an “Lekeitioko kanposantua” artikuluan idatzitakoak¹.

1912an herriko saneamendu sarearen estudio edo ikerketa agindu zioten eta harekin batera herriko plano altxatzea². Hurrengo urteetan ere hemendik ibiliko da, bera da saneamendu sareko lanez eta udalaren hainbat eraikinen erreformez arduratuko dena. Elizarentzat ere eraikin dotorea altxatu zuen Elizatzean, zoritxarrez aspaldi eraitsia. Artxiboan ikusi dugu Udaletxea handitzeko bere proiektu interesgarri bat. Ez zen gauzatu, baina egin izan balitz gaur egun udaletxeak akaso ez luke espazio falta izango; ez dakit ba, zenbat eta gehiago eduki gehiago nahi izaten dugu eta.


¹ Bi eraikin berriak (ataria eta gorputegia) modernismo vienarraren emaitza bikainak dira. Elementu nagusiak honako hauek dira: forma geometriko argi eta astunak, bate-tik, eta kareharrizko harlandu ederrak, bestetik. Sarrerako atea 1913. urtean egin zen; aipagarria da burdineria modernistaren diseinuaren kalitate aparta, batez ere forma lerromakurrak.

Fase honetakoak dira Juan de Arancibia egindako kaperak pribatuak: Rodríguez Espina familiarena (1916) eta Adán de Yarzarrena (1918). Modernismo vienar berantiarreko diseinu heldu eta zoragarriak dira, Europako ederrenetakoak elementu hauei esker: lerro masiboak eta geometrizatuak, kareharrizko harlandu bikainak eta burdineria zoragarria sarrerako atean; Adán de Yarzarren hilobian gurutzeta dago errematean. Rodríguez Espina familiaren kaperan apaindura-elementuen kalitatea goraiatu behar da: hontzen erliebeak, motibo geometrikoak eta lore-koroak. Kaperak horietan beste estilo batzuen eragina ere antzematen da, berantiarrek izanik: neomedievalismo moteldua Adán de Yarzarrenean eta eklektizismokoa Rodríguez Espina familiarean.

² LUA/Udal aktak, 1912-7-4: “El Señor Chopitea hizo ver la falta de plano de la Villa y la necesidad y utilidad que su confección representa; y se acordó encargar dicho trabajo al propio Arancibia para que lo realice conjuntamente con el anterior”. Egun berean saneamendu-sarearen ikerketa eskatu zitzaion.



Lekeitioko plano, Juan Arancibia, 1913. LUA



Lekeitioko Udal Artxiboa (LUA)